



# Foruaren Hobekuntza

Nafarroako Foru Eraentza

Berrezarri eta Hobetzeari buruzko

Lege Organikoa

**IRAKURKETA ERRAZA FORMATUAN**





# Foruaren Hobekuntza

Nafarroako Foru Eraentza

Berrezarri eta Hobetzeari buruzko

Lege Organikoa

**IRAKURKETA ERRAZA FORMATUAN**

---

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren egokitzapena, irakurketa errazeko formatura.

ANFASeko Irisgarritasun Kognitiboko Zerbitzua,  
Plena Inclusión Navarra konfederazioko kidea.



Irakurketa Erraza formatuko dokumentu honen gaztelaniazko bertsioa ANFASeko Irisgarritasun Kognitiboko Zerbitzuak egokitu eta balioetsi du.

Euskarazko itzulpena: Nafarroako Parlamentuko Itzulpen Zerbitzua.

Laguntzailea: Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentua.

Diseinua eta maketazioa: Cristina García Aguayo

Argitaratzailea:



PARLAMENTO DE NAVARRA  
NAFARROAKO PARLAMENTUA



Irakurketa errazeko Europako logotipoa.

ISBN: 978-84-87460-50-0

DL: NA 2762-2018

---

## Aurkibidea

Glosategia.....	6
Zergatik egokitu dugu dokumentu hau Irakurketa Erraza formatura? .....	11
Zer da dokumentu hau? .....	12
Zer aurkituko duzu dokumentu honetan? .....	13
Ohar garrantzitsu batzuk legea ulertzeko .....	14
Hitzaurrea.....	17
Atariko titulua. Xedapen orokorrak. 1go artikulutik 9garrenera .....	19
1. titulua. Nafarroako Foru Erakundeak .....	24
<b>1. kapitulua. Erakundeak. 10garren artikulua .....</b>	<b>24</b>
<b>2garren kapitulua. Parlamentua edo Nafarroako Gorteak.</b>	
<b>11garren artikulutik 22garrenera .....</b>	<b>25</b>
<b>3garren kapitulua. Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa.</b>	
<b>23garren artikulutik 28garrenera .....</b>	<b>33</b>
<b>4garren kapitulua. Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria.</b>	
<b>29garren eta 30garren artikulua .....</b>	<b>36</b>
<b>5garren kapitulua. Diputazioaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko harremanak.</b>	
<b>31garren artikulutik 35garrenera .....</b>	<b>38</b>
<b>6garren kapitulua. Gatazka eta errekurtsioen araubidea.</b>	
<b>36garren artikulutik 38garrenera .....</b>	<b>42</b>
2garren titulua. Nafarroaren ahalmen eta eskumenak .....	44
<b>1. kapitulua. Xedapen orokorrak. 38garren artikulutik 43garrenera .....</b>	<b>44</b>
<b>2garren kapitulua. Ahalmen eta eskumenen zehaztapena.</b>	
<b>44garren artikulutik 58garrenera .....</b>	<b>47</b>
<b>3garren kapitulua. Justizia Administrazioa Nafarroan.</b>	
<b>59garren artikulutik 63garrenera .....</b>	<b>55</b>
<b>4garren kapitulua. Estatuko Administrazioarekiko harremanak.</b>	
<b>64garren artikulutik 69garrenera .....</b>	<b>60</b>
<b>5garren kapitulua. Hitzarmen eta lankidetzak akordioak erkidego autonomoekin.</b>	
<b>70garren artikulua .....</b>	<b>64</b>
3garren titulua. Erreforma. 71garren artikulua .....	65
Xedapen gehigarriak.....	66
Xedapen iragankorrak .....	67
Azken xedapena .....	67



---

Lege hau Nafarroako Parlamentuak eta **Gorte Nagusiek\*** onetsi zuten.

Lege hau Juan Carlos I erregeak (Juan Carlos Lehena erregea irakurtzen da) sinatu zuen.

**Gorte Nagusiak\***

Kongresua eta

Senatua.

Informazio gehiago

nahi baduzu

kontsulta dezakezu

Espainiako Konstituzioa

Irakurketa Erraza


formatuan.

## Glosategia

Glosategia da testu batean agertzen diren hitz ulergaitzen zerrenda  
Glosategian azaltzen da hitz ulergaitz horien esanahia.

Irakurriko duzun lege honetan hitz zail asko dago  
hizkera juridikoak berezkoak dituenak.

Testu osoa ondo ulertzeko garrantzitsua da hitz zailak azaltzea.  
Glosategi honetan aurkituko dituzu azalpen horiek.

Glosategi honetan aurkituko dituzu ikur hau  duten zenbait hitz.  
Horrek esan nahi du hitz horiek zailak direla ulertzeko eta hitz horien azalpena glosategi honetan aurkituko duzula.

Glosategi hau ordena alfabetikoan dago:

### **Administrazioa\***

Herrialde bateko erakundeen multzoa, 2 eginkizun dituena.  
Alde batetik, legea aplikatzen du edo beste batzuei aplikarazten die.  
Bestetik, zerbitzuak zuzentzen ditu herritar guztien ongizatea eta interesak zaintzeko.

### **Agintaritza\***

Agintzen edo gobernatzen duen pertsona.

### **Aurrekontu orokorrak\***

Aurrekontuak dira Nafarroak aurreikusten dituen diru-sarrerak eta gastuak.

---



**Autonomia erkidegoak\***

Probintziak edo probintzia–multzoak.

**Auzitegi Gorena\***

Espanian botere gehien duen auzitegia da.

Lehendakaria eta gainera gobernukideak epaitzen ditu delitu bat egiten dutenean.

**Botere Judiziala\***

Espanian dauden 3 botereetako bat.

Hiru botereak hauek dira: Parlamentua, Gobernua eta Botere Judiziala.

Botere Judiziala ahalegintzen da epaiketetan legeak aplikatzen.

Epaileei buruzko boterea da.

**Delitua\***

Legez kanpoko ekintza.

Adibidez, lapurreta.

**Delitu gorria\***

Norbait ustekabean harrapatzea delitu bat egiten.

Adibidez, norbait harrapatzea une horretan zerbait lapurtzen ari denean.

**Ebazpena\***

Gai jakin batzuei buruz jakinarazten diren erabakiak dira.

Adibidez Administrazioak norbaiti isun bat jartzea erabakitzen duenean.

**Epailea\***

Epaiketa batean

legeak aplikatu eta erabakitzen duena.

**Erakundea\***

Gizartearentzat garrantzitsua den eginkizun bat duen entitate bat da.

**Espainiako Kode Zibila\***

Lege multzoa

pertsonei, ondasunei, jabetzei, obligazioei

eta kontratuei eragiten diena.

**Espainiako Konstituzioa\***

Lege hau da Espainiako legerik garrantzitsuena.

Gainerako legeek ezin dute Espainiako Konstituzioaren aurkakoak izan.

**Espainiako Monarkiaren Gorteak\***

Orain Gorte Nagusiak izena dute.

Kongresua eta Senatua dira.

Kongresuak eta Senatuak Espainiako herritarrak ordezkatzeko dituzte.

**Fiskala\***

Defendatzaile publikoak dira.

Herritarren izenean jarduten dute

haien eskubideak aldeztuz.

**Gai fiskalak\***

Nafarroan ordaindu behar ditugun zergekin zerikusia duten gaiak dira.

**Gehiengo osoa\***

Esan nahi du botoen erdia baino gehiago lortu behar direla.

Nafarroako Parlamentuan gehiengo osoa 26 botorekin lortzen da

parlamentariak guztira 50 direlako.

**Gobernua\***

Espainian lehendakari batek eta zenbait ministrok osatzen dute.

Nafarroan ministroek kontseilari izena dute.

Parlamentuak onetsi dituen legeak betearazteaz arduratzen dira.

**Gorte Nagusiak\***

Kongresua eta Senatua.

Informazio gehiago nahi baduzu

kontsulta dezakezu Espainiako Konstituzioa Irakurketa Erraza formatuan.

---

**Justizia Administrazioako legelaria\***

Epaitegietan lan egiten duen funtzionarioa da.

Hauek dira bere eginkizunak, besteak beste:

- Ziurtatzea idazki bat aurkeztu dela.
- Ziurtatzea epaiketa bat egin dela.

**Justizia Auzitegia\***

3 epaile edo gehiagoko organo judiziala.

**Konstituzio Auzitegia\***

Epaileak dira.

Espainiako Konstituzioa betetzen dela zaintzen dute.

**Kontu orokorrak\***

Nafarroak gastatu duen dirua da.

**Kreditua\***

Bankuari eskatzen zaion diru-mailegua da.

**Lege Itundua\***

Hitzartutako legea.

Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean adostutako legea.

**Lehiaketak eta oposizioak\***

Funtzionario izateko azterketak.

**Lurraldea\***

Eremua.

**Zentsura-mozioa\***

Parlamentuak Gobernuarekiko konfiantzarik ez duenean

uste duelako modu desegokian gobernatzen duela

Parlamentuak Gobernuko lehendakaria kargutik botatzen du.



---

## ¿Zergatik egokitu dugu dokumentu hau Irakurketa Erraza formatura?

Irakurketa Erraza da testuak errazago idazteko modu bat edonork uler ditzan.

Legeak testu korapilatsuak dira batzuetan hitz oso zailak erabiltzen dituztelako. Nafarroako Parlamentuarentzat oso garrantzitsua da lege hau modu errazean idatzita egotea mundu guztiak ulertu ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu 12garren orrialdean.

Hau da Irakurketa errazeko Europako logotipoa:



## ¿Zer da dokumentu hau?

Dokumentu honek izena du 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

Hau da Espainian 1982an egin zen 13garren legea.

Lege hau 1982ko abuztuaren 10ean sinatu zen.

Horregatik legearen izen ofiziala hau da:

13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa.

Lege honi Foruaren Hobekuntza ere deitzen zaio, eta gaztelaniaz LORAFNA.

LORAFNA siglak dira,

Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra hitzen siglak, hain zuzen.

**L:** Ley

**O:** Orgánica

**R:** Reintegración

**A:** Amejoramiento

**F:** Régimen Foral

**NA:** Navarra !

Foruaren Hobekuntza lege organiko bat da.

Lege organiko bat oso lege garrantzitsua da Espainian eta Espainiako Konstituziotik ! dator.

Foruaren Hobekuntza Nafarroako legerik garrantzitsuena da.

---

---

## ¿Zer aurkituko duzu dokumentu honetan?

- Dokumentu honek aurkibide bat du lagunduko dizuna legearen atal desberdinak aurkitzen.
- Dokumentu honek glosategi bat du. Glosategia da testu batean agertzen diren hitz ulergaitzen zerrenda. Glosategian azaltzen da hitz ulergaitz horien esanahia.
- Hitz zailak glosetan ere azaltzen dira. Glosak horrelako koadroak dira:

**Espainiako Konstituzioa\***

Espainiako legerik garrantzitsuena da.  
Gainerako legeek ezin dute  
Espainiako Konstituzioaren  
aurkakoak izan.

Hitz zailak **letra lodiz** idatzita eta horrelako izartxo batekin \* agertzen dira dokumentu osoan.  
Glosak testuan agertzen dira hitz zailaren ondoan.

- Dokumentu honetan aurkituko duzu beste atal bat ere “Ohar garrantzitsu batzuk legea ulertzeko” izenekoak. Atal honetan ideia korapilatsu batzuk azaltzen dira. Irakurri aurretik argi izan behar duzu zer esan nahi duten ideia horiek.
- Hitzazurre bat ere aurkituko duzu. Lege honen historia azaltzen duen sarrera bat da.

## Ohar garrantzitsu batzuk legea ulertzeko

Lege hau irakurtzen hasi aurretik  
garrantzitsua da ideia batzuen esanahia ezagutzea.  
Horrela hobetu ulertuko duzu legeak dioena:



### Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuak baditu beste izen hauek ere:

- Nafarroako Gorteak.
- Legebiltzarra.
- Botere legegilea.

Dokumentu honetan Nafarroako Parlamentua izena erabiliko dugu.

Parlamentariak nafar herritarrek aukeratzen dituzte.

Parlamentariak dira Parlamentua osatzen duten pertsonak.

Parlamentua da

Nafarroako **erakunde\*** garrantzitsuenetako bat.

#### **Erakundea\***

Gizartearentzat  
eginkizun garrantzitsua  
duen erakundea da.

Atal honek hurrengo orrialdean jarraitzen du



---

Hauek dira Nafarroako Gobernuaren eginkizun garrantzitsuenak:

- Nafarroako pertsona guztien ordezkaria da.
- Nafarroak bete beharrekoak diren legeak onesten ditu.
- Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onesten ditu.
- Aurrekontuak dira Nafarroak aurreikusten dituen diru-sarrerak eta gastuak, ondokoetarako:
  - Hezkuntza: ikastetxeak, institutuak.
  - Osasungintza: adibidez, ospitaleak.
  - Gizarte zerbitzuak: adibidez, laguntzak ezgaitasuna duten pertsonentzat.

Aurrekontuak urtean behin onesten dira.

- Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onesten ditu.  
Kontu Orokorrak ! dira Nafarroak gastatu duen dirua.
- Parlamentuak hautatzen du Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eta eskatzen dio gauzak egin ditzan eta egiten duena kontrolatzen du.



## Nafarroako Gobernua

Nafarroako Parlamentuak baditu beste izen hauek ere:

- Nafarroako Foru Diputazioa.
- Botere betearazlea.

Dokumentu honetan Nafarroako Gobernua izena erabiliko dugu.

Erakunde **!** garrantzitsua da Nafarroan.

Hauetara Gobernuaren **!** eginkizun garrantzitsuenak:

- Nafarroako politika egiten du.  
Hau da, Nafarroako herritarren bizimodua hobetzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzen ditu.  
Jarduera horien adibide bat da elikadura osasungarriari buruzko kanpaina bat egitea.  
Proiektu horien adibide bat da ospitale bat egitea.
  - Nafarroako Administrazioa **!** zuzentzen du.  
Hau da, funtzionarioen lana antolatu eta kontrolatzen du.  
Pertsona horiek zerbitzu publikoetan egiten dute lan.
  - Gobernuak Parlamentuan azaltzen du Nafarroako diruarekin eta proiektuekin zerikusia duen oro.  
Adibidez, Nafarroaren gastuak eta diru-sarrerak.
  - Parlamentuak legeak onesten ditu.  
eta Gobernuak lege horiek betearazten ditu.
-

## Hitzaurrea

Atal honetan azalduko dugu lege organiko honen historia.

XIXgarren mendera arte, 19garren mendera arte irakurtzen baita, Nafarroa erresuma bat izan zen.

Erresuma bat da errege batek gobernatutako **lurraldea\*** berezko legeak dituena.

**Lurraldea\***  
Eremua.

XIXgarren mendearen amaieran, 19garren mendearen amaieran irakurtzen baita, Nafarroak erresuma izateari utzi zion baina bere legeak izaten jarraitu zuen.

Nafarroako legeek ezin zuten Espainiako Konstituzioaren **!** aurkakoak izan. Horregatik Nafarroako **Gobernuak\*** eta Espainiako Gobernuak zenbait bilera egin zituzten.

### **Gobernua\***

Espainian lehendakari batek eta zenbait ministrok osatzen dute. Nafarroan ministroek kontseilari izena dute.

Parlamentuak onetsi dituen legeak betearazteaz arduratzen da.

Bilera horietan Espainiak eta Nafarroak erabaki zuten Nafarroak bere legeak izaten jarraitu ahal zuela.

Baina lege horiek Espainiako Konstituzioa **!** errespetatu behar zuten. Hitzarmen hori lege batean idatzi zen eta lege horri **Lege Itundua\*** deitzen zaio.

### **Lege Itundua\***

Hitzartutako legea. Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean adostutako legea.

Lege Itundua 1841eko abuztuaren 16an onetsi zen.

Lege hau **Espainiako Monarkiaren Gorteek\*** onetsi zuten.

Lege Itundua pixkanaka aldatuz joan da

Foruaren Hobekuntza izatera iritsi arte.

Horrek esan nahi du

Foruaren Hobekuntza aldatu eta hobetu egiten dituela

Nafarroak lehendik zituen legeak.

Gaur egun ere Nafarroak dituen legeak

desberdinak dira

gainerako **autonomia erkidegoetako\*** legeen aldean.

Horregatik esaten dugu Nafarroak Foru araubide bat duela.

Horrek esan nahi du Nafarroaren gobernatzeko modua

desberdina dela gainerako autonomia erkidegoen ! aldean.

#### **Espainiako Monarkiaren Gorteak\***

Orain Gorte Nagusiak izena dute.

Kongresua eta Senatua dira.

Kongresuak eta Senatuak

ordezkatzten dituzte.

#### **Autonomia erkidegoak\***

Probintziak edo probintzia-multzoak.

## Gogoratu ideia nagusi hauek

Foruaren Hobekuntza Nafarroako legerik garrantzitsuen da.

Foruaren Hobekuntza Nafarroako antzinako legeen

aldaketak eta hobekuntzak jasotzen ditu.

Lege hau Nafarroako Parlamentuak

eta Gorte Nagusiek ! onetsi zuten.

## Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

Puntu honetan azaltzen dira  
lege honetako gai orokorrenak.

### Artikuluak:

Lege honen arauak dira  
eta bete beharrekoak dira.

### 1 artikulua

Nafarroa foru erkidego bat da.  
Nafarroak badu bere burua gobernatu eta antolatzeko modu bat  
gainerako autonomia erkidegoen ! aldean desberdina dena.  
Nafarroa Espainiaren barruan dago  
eta solidarioa da Espainiako gainerako herriekin.  
Horrek esan nahi du haietaz arduratzen dela.  
Nafarroa ezin da banatu.

### 2garren artikulua

Nafarroak eskubide historiko batzuk ditu.  
Horrek esan nahi du badituela babesten duten arau batzuk  
aspalditik.  
Eskubide historikoak  
**Espainiako Konstituzioaren !** araberakoak dira.  
Horregatik garrantzitsua da horiek errespetatu eta babestea.

### 3garren artikulua

Lege honek dio Nafarroak badituela berezko eskubide eta botereak.  
Eskubide eta botere horiek ezin dute izan  
Espainiako Konstituzioaren ! kontrakoak.

Lege honek Nafarroan dauden erakundeak antolatzen ditu.  
Erakundeak entitateak dira eta Nafarroarentzat eginkizun garrantzitsua  
betetzen dute.

Adibidez Gobernua ! eta Parlamentua.

### 4garren artikulua

Nafarroak 5 lurralde historiko ditu.  
Lurralde horiek dira Iruñea, Lizarra, Tuterako, Zangoza eta  
Erriberri.



## 5garren artikulua

Auzotasun zibila Nafarroan duten espainiarrek dituzte Nafarroako legeek ematen dizkieten eskubide guztiak. Auzotasun zibila izateak esan nahi du pertsona horri Nafarroako foru zuzenbide zibila aplikatzen zaiola. Zuzenbide horrek pertsonak eta beren jabetzak arautzen ditu adibidez jaraunspen edo herentzia kontuetan.

Norbait Espainiatik kanpo bizitzera joaten denean eta auzotasun zibila aldatzen ez duenean Nafarroako eskubideak mantentzen jarraitzen du. Bere seme-alabek ere eskubide berberak dituzte.

## 6garren artikulua

Espainiako gainerako pertsonen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte nafar guztiak.

## 7garren artikulua

Nafarroak armari bat du. Armari bat ikur bat da herriak eta hiriak ordezkatzeko balio duena. Hau da Nafarroako armaria:



Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du

Nafarroan bandera bat ere badu.

Hauxe da Nafarroako bandera:



## 8garren artikulua

Nafarroako hiriburua Iruñeko hiria da.

## 9garren artikulua

Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelania da  
baina toki batzuetan euskaraz ere hitz egiten da.

Bi hizkuntzak hitz egiten diren toki horietako batzuetan  
euskara ere hizkuntza ofiziala da.

Ofizial izateak esan nahi du

**Administrazioak\* !** hizkuntza hori aitortzen duela.

### **Administrazioa\***

Herralde bateko erakunde  
multzoa

bi eginkizun dituena:

1. legeak aplikatzea  
edo besteren bati  
aplikaraztea.
  2. Zerbitzuak zuzentzen ditu  
herritar guztien  
ongizatea eta interesak  
zaintzeko.
-



## Gogoan izan ideia nagusi hauek

Nafarroa foru erkidego bat da.

Nafarroak eskubide historiko batzuk ditu aspalditik.

Eskubide historiko horiek Espainiako Konstituzioarekin ! bat datoz eta ezin dute haren aurka joan.

Nafarroak foru araubide bat du.

Horrek esan nahi du Nafarroak baduela gobernatzeko modu bat desberdina dena beste autonomia erkidegoen aldean.

## 1. titulua. Nafarroako erakundeak

Tituluak lege honetan aztertzen diren gai orokorrak dira.

Titulu honetan azaltzen da zein diren Nafarroak dituen 3 erakundeak eta nolakoa den haien arteko harremana.

Hauek dira 3 erakunde horiek:

1. Nafarroako Parlamentua.
2. Nafarroako Gobernua.
3. Nafarroako Gobernuko lehendakaria.

## 1. kapitulua. Erakundeak

Kapituluetan gai zehatzagoak aztertzen dira, titulu baten barruan

### 10garren artikulua

Nafarroako **erakundeak** !

Foru Erakunde ere izena dute

Nafarroako erakundeak hauek dira:

- Nafarroako Parlamentua.  
Nafarroako Gorteak ere izena du.
  - Nafarroako Gobernua.  
Foru Diputazioa ere izena du.
  - Nafarroako Gobernuko lehendakaria.  
Nafarroa ordezkatzeko duen pertsona da.
-

## 2garren kapitulua. Nafarroako Parlamentua



### 11garren artikulua

Nafarroako Parlamentua Nafarroako pertsona guztien ordezkaria da.

Nafarroako legeak egin eta onesten ditu

eta aurrekontu orokorrak onesten ditu.

Aurrekontuak dira

Gobernuak ! bildu eta gastatuko duen dirua

Hezkuntzarako, osasungintzarako eta gizarte zerbitzuetarako.

Adibidez ikastetxeak, ospitaleak eta mendekotasunerako laguntzak.

Kontu Orokorrak ! ere onesten ditu Parlamentuak

Kontu Orokorrak dira Nafarroak gastatu duen dirua.

Nafarroako Gobernua premiatzen du bere lana egin dezan

Eta Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzen du.

## 12garren artikulua

Lau urtetik behin Parlamentuak  
senatari bat izendatzen du Nafarroan.  
Senatari bat da  
Senatuko kide den pertsona.  
Senatua Madrilen dago  
eta Kongresuarekin batera Gorte Nagusiak ! osatzen ditu

## 13 artikulua

Legeak Nafarroako Parlamentua babesten du inongo pertsonak, **agintaritzak\***  
edo Administrazioak ! ez dezan bere jardueran eragin edo jarduera hori  
kontrolatu.  
Horregatik esaten da Nafarroako Parlamentua bortxaezina dela.

**Agintaritza\***  
agindu edo  
governatzen  
duen  
pertsona.

Parlamentariak ere babestuta daude  
eta ezin dira epaitu  
beren karguarekin zerikusia duten ekintzengatik.  
Adibidez, ezin dira epaitu beren mintzaldiengatik  
edo botoa emateagatik.  
Hori horrela da  
parlamentari izateari utzitakoan ere.

---

## 14 artikulua

Parlamentariak ezin dira atxilotuak izan Nafarroan  
Parlamentuan lan egiten duten bitartean.  
Soilik atxilotuak izan daitezke Nafarroan  
**delitu gori\*** bat egiten harrapatuz gero.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia da erabakitzen duena  
egindako delituaren ondorioz  
parlamentaria atxilotu behar den ala ez.

Gehiago jakin nahi baduzu Justizia Auzitegi Nagusiari buruz  
ikusi lege honen 3garren kapitulua.

## 15 artikulua

Parlamentua 50 parlamentarik osatzen dute.  
Parlamentari horiek  
nafarrek aukeratzen dituzte botoaren bidez.  
Botoa emateko beharrezkoa da 18 urtetik gora izatea.  
Botoa sekretua eta askea da.  
Askea izateak esan nahi du bakoitzak nahi duenari ematen diola botoa.  
Pertsona guztien botoek balio bera dute.  
Bozketa hori 4 urtetik behin egiten da.

### **Delitu\***

Ekintza bat  
legez kanpo dagoena  
Adibidez, lapurreta.

### **Delitu gorria\***

norbait harrapatzea  
delitu bat egiten ari  
denean.  
Adibidez, norbait  
harrapatzea une  
horretan zerbait  
lapurtzen ari denean

## 16 artikulua

Parlamentuan badira arau batzuk denak behar bezala funtziona dezan.  
Parlamentariak arau horiek egin eta onesten dituzte.

Parlamentuak badu diru bat aurrekontua izeneko eta da Parlamentuak jaso eta gastatu behar duen dirua.  
Parlamentuak bozketa egiten du aurrekontuak onartzeko edo baztertzeko.

## 17 artikulua


Nafarroako Parlamentuan ondokoak aurki ditzakegu:


- Osoko Bilkura, Parlamentuaren organo garrantzitsua dena.  
50 parlamentariak osatzen dute.

Osoko Bilkurak honakoak aukeratzen ditu:

- Lehendakaria.  
Parlamentuko legeak betearazten dituena.
- Parlamentuko Mahaia.  
Parlamentariak osatua.  
Parlamentuko lehendakariak  
Parlamentuko Mahaia zuzentzen du.  
Mahaiak erabakitzen du Parlamentuaren funtzionamendua.
- Parlamentuan batzordeak ere badira.  
Batzordeak dira zenbait parlamentariak egiten dituzten bilkurak.  
Han era oso sakonean aztertzen dituzte gai zehatzagoak  
adibidez hezkuntza, osasuna eta abar.

---

Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du 



Parlamentuan bi bilkura mota egiten dira.

Batzordearen bilkuretan

Osoko Bilkurak prestatzen dira.

Osoko Bilkuretan

Batzordeak aurkezten dituzte

haiek egindako azterketen ondorioak.

Horretaz gain beste bilkura batzuk egin daitezke

adibidez parlamentariak eskatuta

edo Nafarroako Gobernuak eskatuta.

Bilkura horietarako deialdia Parlamentuko lehendakariak egiten du.

## 18garren artikulua

Nafarroako Gobernuak aurrekontuak prestatzen ditu eta Nafarroako Kontu Orokorrak ! eramaten ditu. Hori da Nafarroak urtero duen dirua.

Gobernuak ! Kontu horiek Parlamentuan aurkezten ditu eta bertan onetsi, baztertu edo zuzenketak proposatzen dira. Zuzenketak aldaketak edo zuzenkizunak dira.

Bada erakunde ! bat Kontuen Ganbera izenekoa Parlamentuaren menpe dagoena. Kontuen Ganberaren eginkizuna da Nafarroako egoera ekonomikoa aztertzea. Kontuen Ganberak Nafarroako kontuak begiratzen ditu eta dirua nola gastatzen den zaintzen du. Ondoren gomendioak ematen dizkio Parlamentuari.

Arartekoak aldeztu eta babesten ditu Nafarroako pertsona guztien eskubideak. Arartekoa Nafarroako Parlamentuak aukeratzen du.

## 19garren artikulua

Nork proposa dezake legeak egitea?

- Nafarroako Gobernuak.
- Parlamentariak.
- Udalek.
- Nafarroako herritarrek.

## 20garren artikulua

Foru legeak Nafarroako legeak dira. Legeak Parlamentuan onetsi behar dira.

---



---

## 21garren artikulua

Normalean legeak Parlamentuak egiten ditu.

Batzuetan une jakin eta premiazkoetan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari baimena eman ahal dio zenbait lege egiteko.

## 22garren artikulua

Nafarroako Gobernuko lehendakariak

Legeak aldarrikatzen ditu Espainiako Erregearen izenean.

Aldarrikatzeak esan nahi du ezagutzera ematea.

Beraz, Nafarroako Gobernuko lehendakariak:

- Onartu eta ziurtatzen du Parlamentuak lege horiek ofizialki onetsi dituela.
- Xedatzen du legeak argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean. Behin onetsi eta gero legeak aldizkari horietan argitaratzen dira.

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Parlamentuak eginkizun asko ditu.

Hona hemen zeregin horietako batzuk:

- Nafarroako pertsona guztien ordezkaria da.
- Legeak egin eta onesten ditu.
- Nafarroako Kontuak eta Aurrekontu Orokorrak ! onesten ditu.
- Gobernua premiatzen du bere lana egin dezan.
- Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzen du.

Parlamentua bortxaezina da eta legearen babesa du.

Foru parlamentariak ezin dira Nafarroan atxilotuak izan

Parlamentuan lanean ari diren bitartean.

Soilik izan daitezke atxilotuak Nafarroan delitu gori ! bat egiten harrapatuz gero.

Parlamentariak

nafarrek aukeratzen dituzte

botoaren bidez.

Parlamentuan aurki ditzakegu:

- Osoko Bilkura.
- Parlamentuko lehendakaria.
- Parlamentuko Mahaia.
- Batzordeak.

---

## 3garren kapitulua. Nafarroako Gobernua



Kapituluak gai zehatzagoak dira tituluaren barruan.

### 23garren artikulua

Hauetako dira Nafarroako Gobernuaren eginkizunak:

- Nafarroako pertsona guztiei legeak betearaztea.
- Funtzionarioen lana zuzentzea.

Funtzionarioak dira Nafarroako Gobernuarentzat lan egiten duten pertsonak.

Nafarroako Gobernuaren eginkizunak idatzita daude lege honetan eta beste lege garrantzitsuago batzuetan.

### 24garren artikulua

Nafarroako Gobernuak foru araubidea aldeztu du.

Ikusten badu foru araubidea ez dela betetzen

Nafarroako Parlamentuari jakinarazi behar dio.

## 25garren artikulua

Bada foru lege bat azaltzen dituen  
Nafarroako Gobernuaren antolamendu eta funtzionamendua.

## 26garren artikulua

Gobernuak ! Parlatuaren baimena behar du  
dirua eskatzeko  
eta beste lege batzuei buruzko akordioak lortzeko  
gainerako autonomia erkidegoekin ! .

## 27garren artikulua

Auzitegi Gorena Espainian botere gehien duen auzitegia da.  
Auzitegi Gorenaren ardura da  
Presidentea eta Gobernuko gainerako kideak epaitzea  
delitu ! bat egiten badute.

## 28garren artikulua

Gobernuaren agintaldia arrazoi hauengatik amai daiteke:

- Parlatuarentzako hauteskunderen ondotik.
- Parlatuak Gobernuarentzako konfiantzarik ez duenean  
uste duelako ez duela behar bezala gobernatzen.  
Parlatuak Gobernuko lehendakaria kargutik botatzen du.  
Horri **zentsura mozioa** ! deitzen zaio.
- Lehendakaria hiltzen denean edo dimititzen duenean.  
Dimititzea da kargua edo postua uztea.

Gobernuak lanean jarraituko du  
Gobernu berria izendatu arte.

---

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Nafarroako Gobernuak eginkizun asko ditu.

Hona hemen zeregin horietako batzuk:

- Nafarroako pertsona guztiei legeak betearaztea.
- Funtzionarioen lana zuzentzea.

Gobernuak ikusten badu legeak ez direla betetzen

Parlamentuari jakinarazi behar dio.

Parlamentua ez badago ados

Gobernuak duen gobernatzeko moduarekin

bozketa egin dezake lehendakaria kargutik kentzeko.

Horri zentsura mozioa **!** deitzen zaio.

## 4garren kapitulua. Nafarroako lehendakaria

Kapituluak gai zehatzagoak dira tituluaren barruan.

Kapitulu hau da  
Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren buruzkoa.

### 29garren artikulua

Nafarroako Gobernuaren lehendakariak  
parlamentaria izan behar du.  
Parlamentuak hautatzen du  
eta Erregeak izendatzen du.  
Izendatzea da kargu bat ofizial egitea.

Parlamentuko lehendakariak  
eta beste parlamentari batzuek  
pertsonek proposatzen dute  
Nafarroako Gobernuaren lehendakaria izan dadin.

Pertsonek bere programa eta plana aurkezten ditu.  
Ondoren parlamentariak  
bozketak egiten dute  
Nafarroako Gobernuaren lehendakaria hautatzeko.

Nafarroako Gobernuaren lehendakaria izateko  
**gehiengo osoa\*** lortu behar da bozketan.

#### **Gehiengo osoa\***

Esan nahi du  
lortu behar direla  
botoen erdia baino gehiago.  
Nafarroan  
gehiengo osoa  
26 botoekin lortzen da  
parlamentariak guztira  
50 direlako.

## 30garren artikulua

Nafarroako Gobernuko lehendakaria da

Nafarroako figurarik garrantzitsuena.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak

eginkizun hauek ditu:

- Erabakitzen du nortzuk izanen diren foru diputatuak edo Nafarroako Gobernuko kontseilariak. Kontseilariak Gobernuaren ordezkariak dira eta gai zehatzak zuzentzeaz arduratzen dira adibidez kultura, osasungintza, gazteria eta abar.
- Erabakitzen du nola jardun behar duen Nafarroako Gobernuak.
- Foru legeetan zehazten diren zereginak betetzen ditu.
- Parlamentua desegin eta hauteskundeak dei ditzake. Parlamentua desegiteak esan nahi du Parlamentuak bere jarduna amaitzea beste Parlamentu bat aukeratu arte.

### Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Parlamentariak dira

Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzen dutenak.

Lehendakaria da Nafarroako pertsonarik garrantzitsuena.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak honako eginkizunak ditu:

- Erabakitzen du nortzuk izanen diren kontseilariak edo foru diputatuak.
- Nafarroako Gobernuak nola jardun behar duen erabakitzen du.

## **5garren kapitulua. Nafarroako Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko harremanak**

### **31garren artikulua**

Nafarroako lehendakariak eta kontseilariak beren lana justifikatu behar dute Parlamentuaren aurrean.

### **32garren artikulua**

Nafarroako Parlamentuak, bere lehendakariaren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatu ahal dio bere lana hobeto egiteko behar duen guztia.

Parlamentariak ideiak eman ahal dituzte Nafarroako Parlamentuaren ardurakoak diren gaiei buruz.

### **33garren artikulua**

Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta kontseilariak badute eskubidea Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurara eta batzordeetara joan eta bertan hitz egiteko.

---



### 34garren artikulua

Artikulu honetan azaltzen da zer den konfiantza-arazoa.  
 Nafarroako Gobernuko lehendakariak  
 Parlamentuari galdetu ahal dio  
 Parlamentuak berarekiko konfiantza mantentzen ote duen.  
 Konfiantza hori baden ikusteko  
 bozketa bat egiten da.  
 Parlamentariak botoa eman  
 eta lehendakariak botoen gehiengoa lortzen badu  
 bere karguan jarrai dezake.

Bozketan Nafarroako Gobernuko lehendakariak  
 ez badu lortzen botoen gehiengoa  
 Parlamentuak adierazten dio bere konfiantza galdu duela.  
 Orduan lehendakariak kargua utzi behar du eta  
 Nafarroako Gobernuko lehendakari berria aukeratu behar da.  
 Prozesu horrek konfiantza-arazoa izena du.

### 35garren artikulua

Nafarroako Parlamentuak  
 zentsura-mozio **!** bat aurkeztu ahal dio Nafarroako Gobernuari.  
 Horrek esan nahi du Parlamentua ez dagoela ados  
 Nafarroako Gobernuko lehendakariaren gobernatzeko moduarekin  
 eta bere kargua utz dezan nahi duela.

Parlamentuak zentsura-mozio bat egin ahal izateko  
 beharrezkoa da:

- 5 parlamentaritik 1ek gutxienez  
 zentsura-mozioa proposatzea.
- Zentsura-mozioa aurkezten duten parlamentariak  
 pertsona bat proposatu behar dute  
 Gobernuko lehendakari berria izan dadin.
- Bozketa egiten denean  
 beharrezkoa da gehiengo osoa **!** lortzea.

Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du

Parlamentuak zentsura-mozioa onesten badu  
Gobernuko lehendakariak kargua utzi behar du.  
Orduan Parlamentuak izendatuko du  
parlamentariak proposatutako Gobernuko lehendakari berria.

Bozketan ez bada gehiengo osoa ! lortzen  
zentsura-mozioa ez da onesten.  
Zentsura-mozioa proposatu duten parlamentariak  
ezin izanen dute  
beste zentsura-mozio bat aurkeztu  
hurrengo bilkuraldira arte.  
Bilkuraldi bat da  
Parlamentuak bilkurak egiten dituen denbora tartea.  
Urtean bi bilkuraldi izaten dira.

Hori guztia araututa dago  
Parlamentuaren Erregelamendua izeneko arau batean.

---

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Nafarroako lehendakariak eta kontseilariak beren lana justifikatu behar dute Parlamentuaren aurrean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatu ahal dio bere lana hobeto egiteko behar duen guztia.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta kontseilariak badute eskubidea Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurara eta batzordeetara joan eta bertan hitz egiteko.

Nafarroako Parlamentuak zentsura-mozio **!** bat aurkeztu ahal dio Nafarroako Gobernuari.

## 6garren kapitulua. Gatazken eta errekurtsoen araubidea.

Kapitulu honetan azaltzen da erakundeek beren arteko gatazkak izan ditzaketela. Halaber, gatazkak izan daitezke herritarren eta Administrazioaren ! artean. Kapitulu honetan azaltzen da ere nola konpontzen diren desadostasun edo gatazka horiek.

Gatazka horiek konpontzeko modu bat da erreklamazio idatzi bat eginez. Erreklamazio horri errekurtsu deitzen zaio.

### 36garren artikulua

Parlamentuak eta Gobernuak esan dezakete beste erakunde ! bat lantzen ari den gai bat bere eskumenekoa dela. Hau da, berari dagokiola.

### 37garren artikulua

**Konstituzio Auzitegiak\*** Nafarroako legeak kontrolatzen ditu. Auzitegi horrek baliogabetu ditzake Espainiako Konstituzioaren ! aurka doazen Nafarroako legeak.

**Konstituzio Auzitegia\***

Epaileak dira.

Espainiako Konstituzioa betetzen dela zaintzen dute.

---

## 38garren artikulua

Administrazioak ! bidaltzen dituen **ebazpenen\*** aurka erreklamazio idatzi bat aurkez daiteke adibidez isunen kasuan.

Administrazio bidetik gehiago erreklamatu ezin daitekeenean bide judizialek jarrai daiteke hau da, epaitegietan.

### **Ebazpena\***

Gai jakin batzuei buruz jakinarazten diren erabakiak dira. Esaterako Administrazioak erabakitzen duenean norbaiti isun bat jartzea.

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Parlamentuak eta Gobernuak ! esan dezakete beste erakunde ! bat lantzen ari den gai bat bere eskumenekoa dela.

**Konstituzio Auzitegiak\*** Nafarroako legeak kontrolatzen ditu.

Administrazioak ! bidaltzen dituen ebazpenen ! aurka erreklamazio idatzi bat aurkez daiteke.

## 2garren titulua. Nafarroaren ahalmen eta eskumenak.

Tituluak lege honetan aztertzen diren gai orokorrak dira.

Titulu honetan azaltzen da  
zer botere eta eginkizun dituen Nafarroak.  
Botereei ahalmen esaten zaie  
eta eginkizunei eskumen esaten zaie.

## Lehen kapitulua. Xedapen orokorrak.

### 39garren artikulua

Nafarroak ondoko ahalmen eta eskumenak ditu:

- Lege Itunduan ! idatzita zeuden ahalmen eta eskumenak.
- Lege honetan agertzen diren ahalmen eta eskumenak.
- Espainiak Nafarroari ematen dizkion ahalmen eta eskumenak.
- Gobernuaren ustez garrantzitsuak diren beste ahalmen eta eskumen batzuk.

### 40garren artikulua

Badira gai batzuk  
Nafarroari bakarrik dagozkionak.

Gai horietan Nafarroak ondoko botereak ditu:

- Botere legegilea.  
Legeak egiteko ahalmena du.
- Botere erregelamendugilea.  
Legea xeheki garatzen du.
- Botere administratiboa.  
Administrazioa ! zuzentzen du.
- Berrikusten du administrazio bidean.

Horrek esan nahi du ebazten dituela  
Nafarroako Gobernuko Administrazioaren ! aurkako erreklamazioak  
epaitegietara joan aurretik.

Botere horiek idatzita daude lege honetan eta Espainiako legeetan.

Nafarroako foru zuzenbide zibilak aintzat hartzen ez duen airen bat baldin bada  
orduan **Espainiako Kode Zibila\*** erabiltzen da.

Nafarroak badu ahalmena

Nafarroako foru zuzenbide zibila mantendu, garatu eta aldatzeko.

### 41garren artikulua

Nafarroak badu eginkizuna edo eskumena  
lege honen 57garren artikuluan agertzen diren gaiei buruzko  
legeak eta arauak egiteko  
eta gai horiek administratzeko eta berrikusteko.

#### **Espainiako Kode Zibila\***

Lege multzo bat da,  
eragina duena  
pertsonegan,  
ondasunetan, jabetzetan,  
betebeharretan  
eta kontratuetan.

### 42garren artikulua

Nafarroak Espainiako legeak garatu eta betearazi ditzake  
zenbait gaitan:

- Herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak antolatu eta kontrolatu.
- Berrikusteko ahalmena administrazio bidean.

Nafarroak Espainiako legeak errespetatu behar ditu  
eginkizun horiek betetzerakoan.

## 43garren artikulua

Nafarroak dituen eskubide eta ahalmen guztiak

Nafarroa barruan aplikatzen dira.

**Gai fiskalak\*** salbuespena dira.

### Gai fiskalak\*

Nafarroan ordaindu behar ditugun zergekin zerikusia duten gaiak.

Gai fiskaletan

Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak ados egon behar dute eta hitzarmen edo akordio bat sinatu behar dute.

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Badira gai batzuk Nafarroari bakarrik dagozkionak.

Gai horietan Nafarroak ondoko botereak ditu:

- Legeak egitea.
- Legea xeheki garatzea.
- Administrazioa ! gidatzea.
- Nafarroako Gobernuko Administrazioaren aurka aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.

Nafarroak dituen eskubide eta ahalmen guztiak

Nafarroa barruan aplikatzen dira.

**Gai fiskalak !** salbuespena dira.

Gai fiskaletan

Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak ados egon behar dute eta hitzarmen edo akordio bat sinatu behar dute.



---

## 2garren kapitulua. Ahalmen eta eskumenen zehaztapena.

Kapitulu honetan zehazten da  
zer eginkizun eta botere duen erakunde bakoitzak ! .  
Gogoratu eginkizunak eskumenak direla  
eta botereak ahalmenak direla

### 44garren artikulua

Gai batzuetan Nafarroa da arduradun bakarra:

- Nafarroako kultura.
- Etxebizitzaren antolamendua.
- Turismoa.
- Kirola eta aisia.
- Eta beste asko.

### 45garren artikulua

Nafarroak hitzarmen bat du Espainiarekin  
diru kontuei buruz.  
Hitzarmen horrek dio  
zenbat diru ordaindu behar dion Nafarroak Espainiari.

Hitzarmen horretan ere azaltzen da  
Nafarroak Espainiari ordaintzen dion diruarekin  
Nafarroa solidarioa ote den Espainiako gainerako herrieekin.

Nafarroak dirua eskatu ahal dio Espainiari  
baina horretarako arau batzuk bete behar ditu.

Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du

Nafarroak Espainiarekin lortzen dituen akordioak Nafarroako Parlamentuak berrikusi behar ditu.

Nafarroak, foru araubidea duenez, bere zergak eta gastuak antola ditzake.

Nafarroak eta Espainiak hitzarmen ekonomikoak dituzte. Hitzarmen horiek bi aldeen arteko akordioak dira. Nafarroako Parlamentuak onetsi behar ditu baita Madrilen dagoen Diputatuen Kongresuak ere.

## 46garren artikulua

Udalekin zerikusia duten gaietan Nafarroak eskumen hauek ditu:

- Gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak.
- Autonomia erkidegoek ! dituzten ahalmen eta eskumenak.

Ahalmen eta eskumen horiek ezin dira Espainiako legeen aurka erabili.

Nafarroako Gobernuak kontrolatzen du udalen egintzak legezkoak ote diren.

Gai horietan Nafarroako Gobernuak justizia **auzitegien !** eskumenak errespetatu behar ditu.

Nafarroako udalek Espainiako gainerako udalek adina autonomia edo are gehiago dute. Hona hemen zenbait ideia

**Justizia auzitegiak\***  
3 epaile edo gehiagok osatutako organo judizialak.

---

Nafarroako udalekin zerikusia dutenak:

- Nafarroak Espainiako Konstituzioa ! onetsi baino lehen zituen legeak errespetatu behar dira.
- Espainiako legeak ere garrantzitsuak dira eta errespetatu behar dira.

Nafarroako udalek

Espainiako gainerako udalen eskubide berak dituzte.

### **47garren artikulua**

Nafarroako Foru Komunitatea da hezkuntzaren arloaren arduradun bakarra Nafarroan.

### **48garren artikulua**

Nafarroa da Foru Zuzenbide Zibilaren arduradun bakarra. Zuzenbide zibila da herritarrei buruz hitz egiten duena. Nafarroako Zuzenbide Zibilean aldaketak egiteko foru lege baten bidez eginen dira.

## 49 eta 50garren artikulua

Nafarroa da arduradun bakarra gai hauetan, besteak beste:

- Nafarroako erakundeak.
- Erakunde horiek osatzen dituzten pertsonak.
- Funtzionarioak, hots, Nafarroako Gobernuaren zerbitzura lan egiten duten pertsonak.
- Nafarroako errepide eta trenbideak.
- Nekazaritza edo lurra lantzea eta abeltzaintza edo animaliak haztea.
- Ehiza eta arrantza.
- Beste batzuk.

## 51garren artikulua

Foruzaingoa da Nafarroako berezko polizia.

Foruzaingoa Nafarroako Gobernuaren menpe dago.

Nafarroak eginkizun gehiago eman ahal dizkio Foruzaingoari baina lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

Espanian polizia kidego desberdinak daude hala nola Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Ertzaintza, Mossoak eta beste batzuk.

Polizia mota desberdin horiek Espainiako erkidego desberdinetan egiten dute lan.

Foruzaingoaren eta gainerako polizien lana koordinatzeko arduraduna Segurtasun Batzordea da.

---

---

## 52garren artikulua

Nafarroako Gobernuak aukeratzen ditu

Nafarroan lan egin behar duten pertsona hauek:

- Notarioak, zeinak baitira epaitegietatik kanpo kontratu, testamentu eta bestelakoei buruzko gaiak lantzen dituzten funtzionarioak.
- Jabetza-erregistratzaileak, zeinak baitira norbait zerbaiten jabe dela ziurtatzen duten agintariak !. Esaterako, ziurtatzen dute etxe bat pertsona jakin batena dela.
- Merkataritza-erregistratzaileak, zeinak baitira enpresen gai ekonomikoekin zerikusia duten gaiak lantzen dituztenak.

Pertsona horiek aukeratzeko kontuan hartuko da

Nafarroako Foru Zuzenbideari buruzko ezagutza izatea.

Nafarroako Gobernuak iritzia eman dezake

Nafarroako lurralde ! bakoitzean dagoen notario kopuruari buruz.

Baina erabakitzen duena Espainiako Gobernua da.

### **53 eta 54garren artikulua**

Nafarroa barruan, Nafarroa da osasun, higiene eta Gizarte Segurantzaren arloetako arduradun nagusia.

Higienez ari garenean osasunaren babesaz ari gara.

Gizarte Segurantzak ahalbidetzen du osasun zerbitzuetan artatzea, laguntza jasotzea ezgaitasunen bat baduzu edo adinekoa bazara, laguntzak jasotzea langabezia bazauda edota pentsio bat jasotzea, besteak beste.

Nafarroak eginkizun hauek ditu:

- Espainian alor horiei buruz dagoen legeria betearaztea.
- Nafarroan alor horiek lantzen dituzten zerbitzuak, erakundeak eta entitateak antolatzea.

Nafarroak alor horietan lan egokia egiten duen zaintzeko arduraduna Espainia da.

### **55garren artikulua**

Nafarroa da arduradun bakarra Nafarroako irrati eta telebistari buruzko legeak egiteko. Behar dituen hedabideak ere sor ditzake betiere errespetatuta alor horietako lege espainiarrak. Hedabideak dira, adibidez, irratiak, telebista eta egunkariak.

---

## 56garren artikulua

Nafarroa arduradun bakarra da gai batzuetan:

- Nafarroan dagoen dirua antolatzea ekonomia ondo joan dadin.
- Industria edo lantegietan egiten den lana.
- Espainiaren planak betearaztea industria munduan erreformak egiteko.
- Barne-merkataritza, kontsumitzailearen eta erabiltzailearen defentsa.
- Banka Publikoa.
- Aurrezki kutzak.
- Enpresa publikoak.

Nafarroak enpresak errespetatu behar ditu gai horietan guztietan.

## 57garren artikulua

Nafarroa da arduradun bakarra gai hauei buruzko legeak egiteko:

- Herritarrok egiten ditugun erreklamazioak uste dugunean gure eskubideak urratu dituztela.
- Nahitaezko desjabetzea.  
Horrek esan nahi du norbaiti zerbait kentzea arrazoi jakin batengatik, Nafarroak beharrezkoa ikusten duelako.
- Ingurumena eta ekologia.
- Kontrolatzea enpresek gainerako enpresak errespetatzen dituztela.
- **Kredituaren\*** antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- Energia iturriei buruzko legeak.

**Kreditua\***

Bankuari eskatzen zaion diru-mailegua da.

## 58garren artikulua

Nafarroa da arduradun bakarra

gai hauei buruzko lege espainiarrak betearazteko:

- Espetxe–gaiak: norbaitek delitu ! bat egiten duenean zigorra betetzearekin zerikusia duen guztia.
- Lana eta lan–harremanak.
- Jabetza intelektual eta industrialak: errespetatzea norbaitek ideia bat duenean horregatik kobratzea eta aitortza izatea.
- Metalak.
- Nafarroan egiten diren nazioarteko azokak.
- Aireportuak.
- Botikak eta botikagaiak.
- Industria hondakinak eta hondakin kutsatzaileak.
- Artxibo, liburutegi eta museoak.

Nafarroaren ardura da baita ere zaintzea betetzen dela eragiten diguten Espainiaz kanpoko legeek ezarritakoa.

### Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Gai batzuetan Nafarroa da arduradun bakarra esaterako kulturean, hezkuntzan, Nafarroako erakundearen arloan edo osasun gaietan.

Nafarroa da arduradun bakarra gai batzuei buruzko legeak egiteko esaterako irratia eta telebista, errekamazioak edo ingurumena.

Nafarroa da arduradun bakarra beste gai batzuei buruzko Espainiako legeak betearazteko esaterako lana, nazioarteko azokak edo metalak.

Foruzaingoa da Nafarroako berezko polizia.



## 3garren kapitulua. Justizia Administrazioa Nafarroan.



Epaitegi eta auzitegietan maila desberdinak daude.

Epaitegi eta auzitegi guztien multzoari organo judizialak deitzen zaio.

Hauk dira organo judizialen maila desberdinak:

1. Auzitegi Gorena **!** da auzitegi guztietan garrantzitsuena eta Espainia osorako da.
2. Auzitegi Nagusia da autonomia erkidego bateko auzitegi garrantzitsuena. Nafarroakoak Nafarroako Auzitegi Nagusia izena du. 3 areto ditu eta horietako bakoitzak baditu lehendakari bat eta zenbait magistratu edo epaile-kargua duten pertsona.
3. Probintzia Auzitegia da probintzia bateko auzitegia.
4. Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak dira herri handi eta hirietako epaitegiak.

## 59garren artikulua

Nafarroan Auzitegi Nagusi bat dago eta hori da Nafarroako auzitegi garrantzitsuena. Auzitegi horrek ebazten ditu aurkezten dizkioten kasuak.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria da **botere judizialak**\* Nafarroan duen ordezkaria. Nafarroako **fiskal**\* nagusia da Fiskaltzaren ordezkaria Nafarroan.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak eta Nafarroako fiskal nagusiak txosten bat aurkez dezakete urtero Parlamentuan.

### **Botere Judiziala\***

Espanian daude 3 botereetako bat. Beste biak Parlamentua eta Gobernua dira. Epaileei buruzko boterea da.

### **Fiskala\***

Defendatzaile publikoak dira. Herritarren izenean jarduten dute.

## 60garren artikulua

Nafarroa da justizia administrazioaren arduradun bakarra eta ardura hauek ditu:

- Espainian botere judizialari **!** buruz dauden legeak betearaztea.  
Espainia da azkenean erabakitzen duena nola banatu justizia.
  - Nafarroako zein udalerritan jarri epaitegiak erabakitzen parte hartzea.
-

---

## 61garren artikulua

Organo judizialen eginkizunak hauek dira:

- Gatazka zibil, penal eta lan arlokoak ebaztea.  
Gatazka zibilaren adibide bat da etxe baten alokairuarekin lotuta sortutako arazoak ebaztea.  
Gatazka penalaren adibide bat da lapurreta batekin zerikusia duena ebaztea.  
Lan arloko gatazka baten adibidea da lan kontratu batetik eratorritako arazoak ebaztea.
- Nafarroako Administrazioak hartutako erabakien aurka justiziaren aurrean aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.
- Gai jakin bat zer auzitegik ebatzi behar duen jakiteko auzitegien arteko eztabaidak ebaztea.
- Foru Zuzenbideko gaiei buruzko zenbait errekurtsio ebaztea jabetzaren erregistratzaileek hartutako erabakien gainean.

## 62garren artikulua

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da epaileen gobernu organoa.

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak pertsona bat proposatzen du Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria izateko.

Ondoren erregeak pertsona hori lehendakari izendatzen du.

Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du

Bada lege bat azaltzen duena nola izendatzen diren magistratuak, epaileak eta **Justizia Administrazioako legelariak\*** eta beste lege batek azaltzen du nola izendatzen diren Nafarroako Justizia Administrazioan lan egiten duten gainerako pertsonak.

**Justizia Administrazioako legelariak\***

Epaitegietan lan egiten duten funtzionarioak.

Honakoak egiten dituzte besteak beste:

Idazki bat aurkeztu dela ziurtatu..

Epaiketa bat egin dela ziurtatu.

## 63garren artikulua

Gobernuak **!** eskatuko du **lehiaketak eta oposizioak\*** deitzea Nafarroako auzitegietako epaile postuak betetzeko postu horietan langile finkorik ez badago.

**Lehiaketak eta oposizioak\***

Funtzionario izateko azterketak.

---

## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Epaitegi eta auzitegi guztien multzoari organo judizialak deitzen zaio.

Nafarroako Auzitegi Nagusia Nafarroako auzitegi garrantzitsuena da.

Nafarroa da Nafarroako Administrazio Judizialaren arduradun bakarra.

Organo judizialen eginkizunak hauek dira:

- Gatazka zibil, penal eta lan arlokoak ebaztea.
- Nafarroako Administrazioaren erabakien aurkako erreklamazioak ebaztea.

Bada lege bat azaltzen duena nola izendatzen diren magistratuak, epaileak eta Justizia Administrazioako legelariak.

Beste lege batek azaltzen du nola izendatzen diren

Nafarroako Justizia Administrazioan lan egiten duten gainerako pertsonak.

Gobernuak ! eskatuko du oposizioak eta lehiaketak ! deitzea

Nafarroako auzitegi-tako epaile postuak betetzeko  
postu horietan langile finkorik ez badago.

## **4garren kapitulua. Estatuko Administrazioarekiko harremanak**

Kapitulu honetan azaltzen da nolakoa izan behar duen Nafarroaren eta Espainiaren arteko harremanak.

### **64garren artikulua**

Konstituzioak eta lege honek ezartzen dute nolakoa izan behar duen Nafarroaren eta Espainiaren arteko harremanak kontuan hartuta Nafarroaren eskubide historikoak.

### **65garren artikulua**

Espainiako Administrazioak eta Nafarroako Administrazioak akordioak sina ditzakete 2 aldeen interesen alde lan egiteko.

### **66garren artikulua**

Espainiako Gobernuak ordezkari bat izendatzen du Espainiak Nafarroan duen Administrazioa zuzentzeko. Halaber, Nafarroako Administrazioarekin koordinatzen da beharrezkoa denean.

### **67garren artikulua**

Espainiako Administrazioa eta Nafarroako Gobernua lankidetzan aritzen dira eta egiten duten lanaren berri eman behar diote elkarri.

---

## 68garren artikulua

Europar Batasunean

Nafarroan eragina duen gai bat aztertzen denean  
gure erkidegoak parte hartuko du  
Konstituzioak eta lege honek aurreikusitakoaren arabera.

Europar Batasunean aztertzen direnean

Nafarroari eta Espainiari eragiten dieten gaiak  
Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari jakinarazi behar dio.  
Nafarroako Gobernuak egoki jotzen dituen ohartarazpenak egin ditzake.  
Bere iritzia oso garrantzitsua da  
batez ere Nafarroak eskumen osoa duen gaietan  
eta gai ekonomikoetan.

Bestelako eskumenak dituen gaietan

Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuaren iritzia  
entzun behar du.

Espainiako Gobernuak erabaki bat hartu aurretik


Nafarroako Gobernuari entzun behar dio  
Espainiak parte hartzen duen gaietan  
Nafarroan eragina badute.  
Nafarroako Gobernuak bere iritzia eman ahal du  
eta Espainiako Gobernuari proposamenak egin ahal dizkio.

Nafarroak arduratu behar du bete daitezen

Europatik datozen betebeharreko legeak  
eta munduko beste herrialde batzuetatik datozenak.

Nafarroako Gobernuak eskatu ahal dio Espainiako Gobernuari

bere interesak aldeztu ditzala  
Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren **!** aurrean.

Artikulu honek hurrengo orrialdean jarraitzen du 

Nafarroak bulegoak ireki ditzake atzerrian  
bere burua ezagutzera emateko eta bere interesak aldezteko.

Nafarroarentzat garrantzitsua da  
beste erkidego edo herrialdeekiko kooperazioa.  
Kooperatzea da besteei laguntzea.

## 69garren artikulua

Batzuetan sor daitezke  
iritzi edo lege hau ikusteko modu desberdinak  
Nafarroako Gobernuaren eta Espainiakoaren artean.  
Hala gertatuz gero eztabaidatu egin behar da  
eta azkenean akordioak lortu behar dira  
Lankidetza Batzordea izeneko pertsona-talde baten bidez.  
Talde horretan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak daude  
bai eta Espainiako Gobernuarenak ere.  
Lankidetza Batzordea da erakunderik garrantzitsuena  
Nafarroaren eta Espainiaren artean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.  
Batzorde horren eginkizuna da ere  
politika gaiei buruzko plan komunak antolatzea Espainia eta Nafarroarentzat.

Lankidetza Batzorde horrek  
Konstituzio Auzitegia ! eta justizia auzitegiak !  
errespetatu behar ditu.  
Konstituzio Auzitegia da erabakitzen duena  
Espainiako Konstituzioa ! nola aplikatu.

---



## Gogoratu ideia garrantzitsu hauek

Konstituzioak eta lege honek ezartzen dute nolakoa izan behar duen Nafarroaren eta Espainiaren arteko harremanak kontuan hartuta Nafarroaren eskubide historikoak.

Espainiako Administrazioak eta Nafarroako Administrazioak akordioak sina ditzakete bi aldeen interesen alde lan egiteko.

Espainiako Gobernuak ordezkari bat izendatzen du Espainiako Gobernua Nafarroan ordezkatzeko duena. Ordezkari horrek zuzentzen du Espainiak Nafarroan duen Administrazioa.

Europar Batasunean Nafarroan eragina duen gai bat aztertzen denean Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari jakinarazi behar dio. Nafarroako Gobernuak egoki jotzen dituen ohartarazpenak egin ditzake.

Lankidetzaren Batzordea da erakunderik **!** garrantzitsua Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren artean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

## 5garren kapitulua. Hitzarmen eta lankidetzak akordioak komunitate autonomoekin

Kapitulu honetan hitz egiten da  
Nafarroak beste autonomia erkidegoekin ! dituen harremanez.

### 70garren artikulua

Nafarroak akordioak izan ditzake beste autonomia erkidego ! batzuekin  
elkarri laguntzeko xedez.

---

## 3garren titulua. Erreforma

Titulu honetan hitz egiten da lege honi egin ahal zaizkion aldaketei buruz.

### 71garren artikulua

Foruaren Hobekuntza aldatzeko zenbait urrats egin behar dira:

1. Nafarroako Gobernuak edo Espainiako Gobernuak aldaketa proposatu behar dute.
2. Proposatutako aldaketari buruzko eztabaida egingen da.
3. Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak aldaketa horri buruzko adostasuna lortu behar dute.
4. Aldaketa proposamen hori Nafarroako Parlamentura eta Espainiako Gorte Nagusietara **!** eraman behar da.
5. Aldaketa onartu edo baztertu egingen da.
6. Ez bada onartzen legeak zegoen bezala jarraituko du.

## **Xedapen gehigarriak**

Lege honen xedapenek artikuluen balio bera dute.  
Xedapenetan gai zehatz batzuk argitzen dira.

### **Lehen xedapena**

Nafarroak eskubide historiko batzuk ditu.  
Nafarroak ez die uko egin behar eskubide historiko horiei.

### **2garren xedapena**

Parlamentuak erabaki dezake  
Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegora atxikitzeko aukera  
edo geroago harengandik bereiztekoa.  
Erabaki hori balioduna izateko  
herritarrek botoa eman behar dute  
eta bozketan gehiengoa lortu behar da.

### **3garren xedapena**

Nafarroako Foru Komunitateak  
bere gain hartu zituen Foru Diputazioak  
lege hau onetsi aurretik zituen eginkizunak.  
Nafarroak errespetatzen ditu Diputazioko langileek  
lege hau onetsi aurretik zituzten eskubideak.

---

## Xedapen iragankorrak

Aldi baterako legeak dira  
irekita geratzen diren gai batzuetarako datak ezartzen dituztenak.

## Azken xedapena

Lege hau ez da 1839ko Lege Itunduaren ! kontrakoa  
foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten ez dion heinean.  
Foru lege hau bete beharrekoa da  
Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik.

**Irudiak:**

Irakurketa errazeko Europako logotipoa:

© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Informazio gehiago: [www.inclusion-europe.org/etr](http://www.inclusion-europe.org/etr)”

Parlamentuaren argazkia:

[https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones\\_al\\_Parlamento\\_de\\_Navarra](https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_al_Parlamento_de_Navarra)

Nafarroako Foru Diputazioaren argazkia:

[https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Palacio\\_de\\_Navarra,\\_sede\\_de\\_la\\_Diputación.jpg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Palacio_de_Navarra,_sede_de_la_Diputación.jpg)

Nafarroako Justizia Jauregiaren argazkia: Silvia Ganuza Biurrun.

Nafarroako mapa:

De Miguillen - Navarra - Mapa municipal.svg, CC BY-SA 4.0, <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=5112024>

Nafarroako armaria:

[https://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:Escudo\\_de\\_Navarra\\_\(oficial\).svg](https://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:Escudo_de_Navarra_(oficial).svg)

Nafarroako bandera:

By Miguillen [Public domain], from Wikimedia Commons.

**Definizioak:**

Dokumentu honen gaztelaniazko bertsioan agertzen diren definizioetako batzuk dokumentu hauetatik hartu dira: Diccionario fácil, Constitución Española en lectura fácil eta Estatuto de autonomía de Melilla en lectura fácil.

---





**Foruaren Hobekuntza**